Ez dira onartuko aurreko baldintzak betetzen ez dituzten edo/eta egiaztatzen ez dituzten lizitatzaileen proposamenik.

No serán admitidas las propuestas de los licitadores que no cumplan y/o acrediten las anteriores condiciones.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean zerbitzua emango duen pertsona barririk sartuko balitz, horiek ere titulazioa eta euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute. Gainera, sexu-delituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Así mismo, si se incorporaran nuevas personas para la prestación del servicio estando ya el contrato vigente, estas también deberán acreditar su titulación y la competencia lingüística en euskera. Además, deberán presentar el certificado de delitos sexuales.

Estas condiciones tendrán carácter de obligación contractual esencial a los efectos previstos en el artículo 211.1.f) de la LCSP, siendo por tanto el incumplimiento de la misma causa de resolución del contrato.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Jo daiteke kontratazio honen espedientera horrekin batera doan dokumentazio teknikora, eta agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara Arrasateko Udaleko **Kontratatzailearen Profilaren** bidez, iragarkia bidaltzen denetik aurrera **Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera** eta amaitu arte epea proposamenak aurkezteko.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, jo hona:

KONTRATAZIO UNITATEA
Herriko plaza nagusia 1 – 20500 Arrasate
Tel. 943 25 20 00 / Faxa: 943 25 20 55
E-posta: kontratazioa@arrasate.eus
Kontratistaren Profila:
www.contratacion.eus

Proposamenak aurkeztuko dira baliabide elektronikoak bakarrik erabilita, 9/2017

11. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

El acceso al expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y la documentación complementaria podrá realizarse a través del **Perfil del Contratante** del Ayuntamiento de Mondragon, a partir del envío del anuncio al **Diario Oficial de la Unión Europea** y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.

Para contactar con la Unidad de Contratación dirigirse a:

UNIDAD DE CONTRATACION
Herriko plaza nagusia,1 – 20500 Arrasate
Tel. 943 25 20 00 / Fax 943 25 20 55
E-mail: kontratazioa@arrasate.eus
Perfil del Contratante:
www.arrasate.eus

La presentación de proposiciones se llevará a cabo utilizando exclusivamente medios

SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzen arabera, **HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epean** (azken eguna zapatua bada edo jaieguna, epea handituko da hurrengo lehen egun baliodunera arte), iragarkia **Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera** bidali eta hurrengo egunetik aurrera. Noiz bidali den zehaztuko da Udaleko **Kontratatzailearen profilean.**

electrónicos, de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP 9/2017**, DURANTE EL PLAZO DE TREINTA (30) DÍAS NATURALES** (en caso de que el último día coincida en sábado o festivo el plazo se ampliará hasta el primer día hábil siguiente), contados a partir del siguiente a la fecha del envío del anuncio al Diario **Oficial de la Unión Europea**. La fecha del envío se especificará en el anuncio del **Perfil del Contratante del Ayuntamiento.**

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak arbitratuko dira izaera hori bermatzeko, proposamenak irekitzen diren unera arte.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.

Las proposiciones deberán presentarse redactadas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición. No se podrá presentar ninguna propuesta en unión temporal con otros/as si se ha efectuado individualmente, o figurar en más de una unión temporal.

Informazioa eta zehaztapen teknikoak, behar direnak proposamenak elektronikoki aurkezteko, bai eta zifratua eta egunaren baliozkotzea ere, sartuta daude Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman (www.contratación.euskadi.eus).

La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus).

Eskaintzak baliabide elektronikoez bidali ahal izango dira fase bitan, lehenik eta behin igortzea eskaintzaren hatz marka elektronikoa, zeina jasotzen denean egintzat joko da hura aurkeztea ondorio guztietarako, eta gero eskaintza bera gehienez 24 orduko epean. Bigarren hori ez bada bidali esandako epean, kontsideratuko da eskaintza erretiratu egin dela.

El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.

Ulertzen da eskaintzaren hatz marka elektronikoa dela datu multzo bat, zeina sortu izanak bermatzen duen lotura dutela modu agerian eskaintzaren beraren edukiarekin, eta uzten dutela detektatzen eskaintzaren edukian izan daitezkeen aldaketak, zeinak bermatzen duen hura zuzena dela. Espedientean sartu behar diren agirien kopia elektronikoek bete behar dute indarrean dagoen legeriak ezarritakoa administrazio prozedura erkideari buruz, eta ordeztu legerian ezarritako ondorioak.

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Erabiltzaileen Laguntza Zentroa

- 012 telefonoa, deituz gero Euskadiko Autonomia Erkidegotik.
- 945 018 000 telefonoa, deituz gero Estatuko beste leku batetik.
- Internet-eko helbidea: www.euskadi.eus
- Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, y que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, sustituyendo los efectos establecidos en la misma.

PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA

Centro de Atención a usuarios

- Telefono 012, para las llamadas realizadas desde la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Telefono 945 018 000, para las llamadas realizadas desde el resto del Estado.
- Dirección de internet: www.euskadi.eus
- Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

PROPOSAMENEN EDUKIA:

Lizitatzaileek **HIRU FITXATEGI ELEKTRONIKO (A, B eta C)** aurkeztu beharko dituzte.

1) "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA eta izenburua izango du "ZER GAITASUN ETA KAUDIMEN BEHAR DEN KONTRATATZEKO", eta agiri hauek edukiko ditu:

- **Kontrataziorako Europar Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko** kontratatzailaeran profilaren, lizitazio iragarkian.

Hainbat enpresa aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute SPKLren 69. artikuluaren 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.

CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES:

Las empresas licitadoras deberán presentar **TRES ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A, B y C).**

1) ARCHIVO ELECTRÓNICO "A" se denominará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá los siguientes documentos:

- **El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC). El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente** en el anuncio de esta licitación en el Perfil del Contratante.

En el supuesto en que varios/as empresarios/as concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.

Adicionalmente a la declaración o declaraciones a que se refiere el párrafo anterior se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los/las empresarios/as que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 de la LCSP.

SPKLren 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

Las empresas extranjeras deberán acreditar su capacidad en la forma prevista en los artículos 67 y 68 de la LCSP. Además de la declaración responsable, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados o tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

- **Helbide elektroniko gaitu** bat jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, kontratazio prozedura honetatik sortuak, baliabide elektroniko bidez.

- **Una dirección electrónica habilitada** para efectuar las notificaciones y comunicaciones derivadas del presente procedimiento de contratación por medios electrónicos.

2) "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA eta izenburua izango du "MEMORIA TEKNIKOA", eta agiri hauek edukiko ditu:

Agiriak adjudikazio irizpideei buruz; horren balorazioa egongo da balio irizpen baten mende, hain zuzen ere:

- Memoria teknikoa, zeinak bide emango duen adjudikazio irizpideak baloratzeko, ezarriak 8. klausulan, 3. atalean.

2) ARCHIVO ELECTRÓNICO "B" se denominará "MEMORIA TÉCNICA" y contendrá los siguientes documentos:

Documentación relativa a los criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor, en concreto:

- Memoria técnica que posibilite la valoración de los criterios de adjudicación establecidos en la cláusula 8 apartados 3.

Fitxategi bakarra izango da, PDF formatukoa, eta testuen araberako bilaketak egiteko aukera emango du. Orrialdeak zenbakituta egongo dira, eta aurkibide bat izango du kapitulu bakoitzaren orrialdea adierazita. Gehienez 40 orrialde izango ditu. Azala eta aurkibidea ez dira kontuan hartuko 40 orrialdeak zenbatzerakoan.

Será un único fichero en formato PDF que permitirá búsquedas por texto, estará paginado y contendrá un índice con indicación de la página de cada capítulo. Tendrá como máximo 40 páginas. La portada y el índice no se tendrán en cuenta en el cómputo de las 40 páginas.

Aurkeztutako "Obraren Memoria Teknikoak", adierazitako orri kopurua gainditzen badu, balorazioa egiteko ez da kontuan hartuko finkatutako luzera gainditzen duen guztia.

En el caso de que la "Memoria Técnica de la Obra" presentada, supere el número de páginas señalado, no se tendrá en cuenta para la valoración, todo lo que exceda de a extensión fijada".

Inola ere ez dira sartu behar artxibo elektroniko honetan, ez proposamen ekonomikoa ez adjudikazio irizpideen beste edozein datu, irizpideok modu automatikoan zenbatu daitezkeenak, sartu behar baitira "C" artxibo elektronikoan.

En ningún caso deben de incluirse en el presente archivo electrónico la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deberán incluirse en el archivo electrónico "C".

Datu horietako edozein sartuz gero "B" artxibo elektronikoan, lizitatzailea geratu daiteke prozedura honetatik kanpo, eta ez da irekiko "C" artxibo elektronikoa.

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo electrónico "B" podrá conllevar la exclusión de la empresa licitadora del presente procedimiento, y no se procederá a la apertura del archivo electrónico "C".

3) "C FITXATEGI ELEKTRONIKOA" eta izenburua izango du "PROPOSAMEN EKONOMIKOA", eta agiri hauek edukiko ditu:

a. Proposamen ekonomikoa, egokitua administrazio agiri honetako I. eranskinaren ereduari.

3) ARCHIVO ELECTRÓNICO "C" se denominará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA" y contendrá:

a. Proposición económica ajustada al modelo del Anexo I del presente Pliego Administrativo.

b. Kontratazio berrien % 50ean emakumeak kontratatzeko konpromisoa.

Gutun azal honetan, inola ere ez da sartu behar memoria teknikoa, lan programa, edo beste edozein datu, adjudikazio irizpideei dagozkienak, haren balorazioa dagoenean balio irizpide baten mende, "B" artxibo elektronikoan sartu behar dira eta.

Datu horietako edozein sartuz gero "C" artxibo elektronikoan, ez dira baloratuko agiriok; hortaz, bakarrik emango zaizkio adjudikazio irizpideen puntuak, zenbatu daitezkeenak era automatikoan.

b. Compromiso de contratación de mujeres en el 50% de las nuevas contrataciones

En ningún caso deben de incluirse en el presente sobre la memoria técnica, el programa de trabajo, o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor y que deberán incluirse en el archivo electrónico "B".

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo electrónico "C" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se le asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma

12. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko

12. VARIANTES O ALTERNATIVAS

No se admiten

13. KONTRATAZIO MAHAIA

Arrasateko Udalaren Kontratazio mahaia izango da.

Mahaiaren bilerara, gainera, udaleko arduradun teknikoak joan ahal izango dira, mahaiak eskatzen badie joateko aholkularitza lanak egitera.

13. MESA DE CONTRATACIÓN

Será la Mesa de Contratación permanente del Ayuntamiento de Arrasate.

Podrán asistir, además, todo aquel personal técnico municipal cuya presencia sea solicitada por la Mesa, para ejercer labores de asesoramiento.

14. AGIRIAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Epea amaiturik proposamenak aurkezteko, mahaiak kalifikatuko ditu garaiz eta behar bezala jasotako

14. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES

Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa calificará la documentación

agiriak (A artxibo elektronikoa), eta horretarako, jardungo du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 141. artikuluan adierazitako moduan.

Hartarako, argibideak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte, lizitatzaileen gaitasunari eta kaudimenari buruz, Erregelamenduaren 22. artikuluak xedatzen duen bezala, eta horiek ekarri beharko dira bost egun naturaleko epean. Mahaiak ahoz emango die interesdunei zer argibide edo informazio osagarri eskatu den, eta, era berean, horiek iragarriko dira Kontratazio organoaren iragarki taulan. Era berean, mahaiak jakinaraziko du akats zuzengarriak daudela aurkeztu diren agirietan, epearen barruan, kasu honetan hiru egun baliodunekoa, enpresa lizitatzaileek konpondu edo zuzendu ditzaten antzemandako akatsak.

Egintza horretan bertan Kontratazio mahaiak irekiko du "B" artxibo elektronikoa (memoria teknikoa), eta bidaliko dio hura baloratzearen ardura duen organoari, zeinak balorazio txostena itzuli beharko dion, proposamen ekonomikoa jende aurrean ireki baino lehen.

Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

recibida en tiempo y forma (archivo electrónico "A"), procediendo, para ello, como se señala en el artículo 141 de la Ley de Contratos del Sector Público.

A tal efecto, podrán pedirse aclaraciones o documentos complementarios sobre la capacidad y solvencia de las empresas licitadoras que habrán de aportarse, tal y como dispone el artículo 22 del Reglamento, en el plazo de cinco días naturales. La solicitud de aclaraciones o información complementaria será comunicada por la Mesa verbalmente a los interesados, anunciándose, igualmente, en el tablón de anuncios del Órgano de contratación. En la misma forma comunicará la Mesa la existencia de vicios subsanables en la documentación presentada para que en el plazo, en este caso, de tres días hábiles las empresas licitadoras corrijan o subsanen los defectos observados.

En este mismo acto la Mesa de Contratación procederá, a la apertura del archivo electrónico "B" (Memoria Técnica), y las remitirá al órgano encargado de su valoración, que deberá devolver el informe de valoración antes de la apertura pública de la proposición económica.

La Mesa de Contratación, reunida en acto público, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del archivo "C" (Criterios cuantificables por fórmulas) y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas.

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak ("C" artxibo elektronikoa) irekiko dira jende aurrean, kontratatzailearen profilean www.arrasate.eus eta onartutako enpresa lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako lekuan, egunean eta orduan.

Geroago, Kontratazio mahaiak adjudikazio proposamena bidaliko dio dagokion kontratazio organoari.

Las ofertas económicas presentadas (archivo electrónico "C") serán abiertas en acto público en el lugar, fecha y hora que se indique en el perfil de contratante (http://www.arrasate.eus) y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas.

Posteriormente la Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación del contrato al Órgano de Contratación que haya de efectuar la misma.

Proposamenen puntuazioan dagoen berdintasunaren aurrean, eta SPKLren 147. artikuluaren arabera, berdinketa erabakitzeko, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagozkion irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

1.- Plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, lehentasuna emanez plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handienari edo plantillan txertatuta dauden langileen kopuru handienari.
2.- Plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena.
3. - Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
4. Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa haustea eragin ez badu.

Ante la igualdad en la puntuación de las diferentes proposiciones y de conformidad a lo establecido en el art. 147 de LCSP, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

1.- Mayor porcentaje de personas trabajadoras con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla, primando en caso de igualdad, el mayor número de personas trabajadoras fijas con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla
2.-Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla.
3.- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla.
4.- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

Klausula honetan aipatzen diren berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean lizitatzen dutenek aurkeztuko dituzte, eta ez aldez aurretik.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere la presente clausula será aportado por quienes liciten en el momento en el produzca empate, y no con carácter previo.

15. ADJUDIKATZEA, SINATZEA ETA

15. ADJUDICACIÓN, FORMALIZACIÓN Y

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

GASTUAK

Kontratazio mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, aktarekin eta adjudikazio proposamenarekin batera.

Kontratazio Organoak, aukeran, ahalmena izango du kontratua adjudikatzeko proposamen onenari, agiri honetako 8. klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, halabeharrez kasu egin barik proposamenaren balio ekonomikoari, edo ahalmena izango du prozedura huts deklaratzeko, baina kasu guztietan arrazoitu egingo du erabakia, adjudikazio irizpide horiei buruz.

Alkateak, Kontratazio organoak eskuordetuta, proposamenak sailkatuko ditu eta eskatuko dio lizitatzaileari, eskaintzarik onena aurkeztu duena, hauek egiteko, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun balioduneko epean:

a) Dokumentazioa ekartzea, egiaztatzeko zer ahalmen eta kaudimen duen kontratatzeko (hala badagokio, sailkapena ere bai).

b) Jartzea behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria.

c) Kopia bat aurkeztea erantzukizun zibileko aseguruaren polizarena eta ordainagiriarena.

d) Adieraztea zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

GASTOS

La Mesa de Contratación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 150.1 de la Ley de Contratos del Sector Público elevará las proposiciones presentadas junto con el acta y la propuesta de adjudicación al órgano de contratación.

El Órgano de Contratación tendrá alternativamente la facultad de adjudicar el contrato a la mejor oferta mediante la aplicación de los criterios establecidos en la cláusula 8 del presente pliego, sin atender necesariamente al valor económico de la misma, o declarar desierto el procedimiento, motivando en todo caso su resolución con referencia a dichos criterios de adjudicación.

La Alcaldesa, por delegación del Órgano de Contratación, clasificará las ofertas y requerirá a la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles contados desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, realice las siguientes actuaciones:

a) Aportar la documentación para acreditar la capacidad y la solvencia para contratar (incluida la clasificación en su caso).

b) Constituir la garantía definitiva y, en su caso, la garantía complementaria.

c) Presentar copia de la póliza y del recibo del seguro de responsabilidad civil

d) Indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato.

e) Egin beharreko azpikontratuen zerrenda aurkeztea, azpikontratatutako enpresa bakoitzak egin beharreko kontratuaren zatiak adierazita, eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria aurkeztea, bai eta egin beharreko kontratuaren zatia gauzatzeko kontratistak duen gaitasunaren justifikazioa ere.

e) Presentar la relación de los subcontratos a celebrar, con indicación de las partes del contrato a realizar por cada empresa subcontratada aportando la identidad, datos de contacto y representante legal del subcontratista, así como la justificación de la aptitud de este para ejecutar la parte del contrato que vaya a realizar.

f) Baliabideak nahitaez atxikitzeko konpromisoari dagokionez egiaztatzea langileen titulazioa eta esperientzia baldintzak, hizkuntza eskakizunak eta sexu-delituen ziurtagiri negatiboa (baliabideak nahitaez atxikitzeko 10. klausula).

f) Respecto del compromiso de adscripción obligatoria de medios, acreditación de titulación y experiencia del personal adscrito, perfiles lingüísticos y certificación negativa de delitos sexuales (cláusula 10 de compromiso de adscripción obligatoria de medios).

Adjudikazioa egingo da aurreko 10 eguneko epea bukatu eta hurrengo 5 egun baliodunetan, baldin eta enpresa lizitatzaileak aurkeztu badu adierazitako dokumentazioa eta jarri badu behin betiko bermea.

La adjudicación se realizará dentro de los cinco días hábiles siguientes a aquél en que expire el plazo de diez días anterior, siempre que la empresa licitadora haya presentado la documentación señalada y constituido la garantía definitiva.

Kontratua adjudikatzen ez zaionean enpresa lizitatzaile bati, eskaintzarik onena egin arren, hark ez dituelako bete baldintzak, beste deialdi berri bat egin baino lehen, administrazioak beste errekerimendu bat bidali ahal izango dio ondorengo lizitatzaileari, edo bidali ahal izango die haren ondorengoei, betiere eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkerari jarraituz (gaitasuna egiaztatu ez duen enpresa kenduta), zeini emango zaion hamar egun balioduneko epea lehenago adierazitakoa betetzeko.

Cuando no proceda la adjudicación del contrato a la empresa licitadora que hubiese presentado la mejor oferta por no cumplir ésta las condiciones necesarias para ello, antes de proceder a una nueva convocatoria la Administración podrá efectuar un nuevo requerimiento a la empresa licitadora o licitadoras siguientes a aquella, por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas (una vez eliminada la empresa que no acredita su capacidad), en cuyo caso se concederá a ésta un plazo de diez días hábiles para cumplimentar lo señalado anteriormente.

Adjudikatuko da gehienez 3 hilean, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera.

La adjudicación se realizará en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día siguiente al de la apertura de las proposiciones.

Adjudikazioaren jakinarazpena bidali zenetik

Una vez transcurrido el plazo de quince días

hamabost egun balioduneko epea igarotakoan, bost egun izango du kontratua sinatzeko agiri administratibo batean

Sektore Publikoaren Kontratuen Legaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak egin daitezke helbide elektroniko gaitu baten bidez edo agertze elektronikoaren bidez. Epeak, jakinarazpena egiten denetik aurrera, zenbatuko dira hura bidaltzen den egunetik edo jakinarazpen abisua egiten denetik, baldin eta agertze elektronikoa bada, betiere jakinarazi behar dena argitaratu bada egun berean kontratatzailearen profilean. Hala izan ezean, epeak zenbatuko dira interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik.

Epea, jakinarazpena baztertutzat jotzeko, 39/2015 Legearen 41.5 artikuluan aurreikusitakoa ondorioez, 10 egun naturalekoa izango da, zenbatuak frogatua dagoenetik interesdunaren eskura utzi dela haren edukia jaso barik, ez bada ofizioz egina edo hartzaileak hala eskatuta egiaztatzen bada ezin izan dela jaso teknikoki edo materialki.

hábiles desde el envío de la notificación de la adjudicación, dispondrá de cinco días para proceder a la firma del contrato en documento administrativo.

De conformidad con la Disposición adicional decimoquinta de la Ley de Contratos del Sector Público, las notificaciones se podrán realizar mediante dirección electrónica habilitada o mediante comparecencia electrónica. Los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil del contratante. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado.

El plazo para considerar rechazada la notificación, con los efectos previstos en el artículo 41.5 de la Ley 39/2015, será de 10 días naturales computados desde que se tenga constancia de su puesta a disposición del interesado sin que se acceda a su contenido, salvo que de oficio o a instancia del destinatario se compruebe la imposibilidad técnica o material de acceso.

III.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA

16. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko akordioan udal teknikari bat izendatuko da, kontratua exekutatzearen arduraduna, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 62. artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

17. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

III.- EJECUCION DEL CONTRATO

16. RESPONSABLE DEL CONTRATO

En el acuerdo de adjudicación del contrato se designará un técnico municipal responsable de la ejecución del contrato, con las funciones que se prevén en el artículo 62 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

17. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Kontratua exekutatuko da kontratistaren arriskuz eta zoriz.

Kontratua exekutatzeko, bete beharko dira agiri honetan jasota dauden baldintzak eta, hala badagokio, espedienteari batutako xehetasun teknikoak, Administrazioak zuzenduta, ikuskatuta eta kontrolatuta, zeinak ahalmen horiek erabiliko dituen idatziz nahiz ahoz.

Kontratua ondo ez doanean kontratistak edo haren mendeko pertsonek egintza batzuk egiteagatik edo ez egiteagatik ezer, administrazioak agindu ahal izango du beharrezko jotzen dituen neurriak hartzeko, kontratua egoki eta behar bezala bete dadin.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista.

El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

18. NORBERAREN DATUAK

Enpresa adjudikazioadunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Baldin enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, SPKLak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

18. DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

La empresa adjudicataria deberá cumplir lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE así como lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

En el caso de que el contrato conlleve tratamiento de datos de carácter personal o el acceso de la empresa contratista o subcontratista a datos de este carácter, se estará a lo dispuesto en la disposición adicional vigésima quinta de la LCSP, y a las siguientes reglas:

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

1. La contratista únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento.

2. Los datos personales objeto del tratamiento serán utilizados, única y exclusivamente, para la realización del objeto del contrato, no pudiendo ser destinados a finalidad diferente a la señalada.

3. Ninguno de los datos personales tratados como consecuencia de este contrato será facilitado a terceros. A tal efecto, la contratista se compromete a no revelar, transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con los mismos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su visualización, a ninguna tercera parte.

4. La contratista y todo el personal que intervengan en la prestación objeto del contrato quedan obligados por el deber de secreto a que se refiere la Ley Orgánica de Protección de datos de carácter Personal. Este deber perdurará aún después de que el contrato se haya extinguido bien por su cumplimiento bien por su resolución.

5. La contratista se compromete a adoptar las medidas técnicas, administrativas y organizativas exigidas por la normativa vigente en materia de protección de datos, necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal tratados para la realización de los trabajos objeto de este contrato:

a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

a) A este respecto, la empresa deberá entregar al órgano de contratación antes del inicio de los trabajos una relación con el nombre, apellidos, funciones y lugar donde van a desarrollar el trabajo de todo el personal que tenga acceso a los datos de carácter personal. Si durante el curso de la ejecución del contrato fuera necesario incorporar o dar de baja a personal, la empresa adjudicataria entregará una nueva relación en un plazo máximo de una semana desde que sucediera este hecho. Tanto la empresa adjudicataria como todo el personal que figure en estas relaciones deberán comprometerse formalmente por escrito a mantener el secreto profesional con respecto a los datos tratados.

b) Adjudikaziodunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.

b) La adjudicataria se obliga a implementar las medidas de seguridad con respecto a los centros de tratamiento, locales, equipos, sistemas y programas que, en su caso, se especifiquen en los pliegos técnicos.

c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, adjudikaziodunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

c) Una vez finalizada la prestación objeto del contrato deberán devolverse todos los soportes o destruir o borrar todos los ficheros que contengan datos de carácter personal por parte de la empresa adjudicataria. La destrucción se realizará de tal manera que sea imposible aplicar cualquier proceso de recuperación. La certificación de la devolución o destrucción de los ficheros se realizará mediante un acta suscrita por el representante de la adjudicataria y por la persona que ejerza la dirección de los trabajos en la que consten tales circunstancias.

Kontratatutako zerbitzuei buruz enpresa adjudikaziodunak jakin dakizkien datu guztiak dira konfidentzialak, eta gorde beharko dira horien izenak eta sekretua. Adjudikaziodunak kalte-ordaina eman beharko dio udalari, eta kalte-ordaina eman beharko die isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeagatik kalte eta galerak izan dituzten pertsonei.

Todos aquellos datos que pudiera conocer la empresa adjudicataria en relación con los servicios contratados se entienden confidenciales, debiendo guardar la identidad y el secreto de los mismos. La empresa adjudicataria deberá indemnizar al Ayuntamiento y a las personas afectadas por los daños y perjuicios causados por la contravención del deber de sigilo profesional.

19. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistak derrigorrean bete behar ditu lanari buruz indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun edo higienekoak, kontratu honetako xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez, eta administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek ez badira betetzen.

19. OBLIGACIONES LABORALES DE LA CONTRATISTA

La empresa contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, con respecto al personal que emplee en los servicios objeto de este contrato, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.

Gainera, adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu zerbitzu horiek gaur egun egiten dituzten langileak, eta subrogaturik geratuko da aurreko adjudikaziodunak zeuzkan laneko eskubideetan eta obligazioetan, eta legeria eta lizitazio unean indarrean dagoen legeria eta lan hitzarmen kolektiboa beteko ditu. Bere gain hartu beharreko langileen artean daude, kontrataren titularitate aldaketa egitean EI egoeran dauden langileak, amatasun atsedenean, behin-behinekoz ezintasun egoeran, eszedentzian edo oporretan daudenak. Birkontratatzen diren zerbitzuen zerrenda eta horiei atxikitako pertsonen zerrenda, horien hitzarmen, soldata, antzinatasun eta abarrekin, plegu teknikoetako **I. ERANSKINean** datoz jasota.

Además, el adjudicatario deberá de asumir el personal que actualmente presta estos servicios quedando subrogado en los derechos y obligaciones laborales que tenía el anterior adjudicatario, dando cumplimiento a la legislación y al convenio colectivo laboral vigente en el momento de la licitación. El personal a asumir incluye también a los/as trabajadores/as que en el momento de cambio de titularidad de la contrata se encuentren en situación de IT, descanso maternal, invalidez provisional, excedencia o vacaciones. La relación de las personas adscritas al servicio con sus respectivos convenios, salarios, antigüedades, etc, se adjuntan en el **ANEXO I** del pliego de prescripciones técnicas.

Subrogazioa gertatu eta laneko kostuak izanez gero lehengo kontratistak kontratazio organoari emandako informaziotik ateratakoak baino handiagoak, kontratista berriak zuzenean egin ahal

En el caso de que una vez producida la subrogación los costes laborales fueran superiores a los que se desprendieran de la información facilitada por el antiguo contratista al órgano de contratación, el nuevo contratista tendrá acción

izango du lehengo kontratistaren aurka.

Halaber, kontratua amaitutakoan, kontratista behartuta egongo da subrogazioz eragindako langileei ordaindu ez zaizkien soldatei erantzuteko, baita ere, sortutako gizarte segurantzako kotizazioei erantzuteko, nahiz eta kontratua indargabetu eta langileak subrogatu beste kontratista berri batez, eta obligazio hori kasu batean ere ez dagokio azken kontratista horri.

Enpresa kontratistak langileen lan- eta soldata-baldintzak bete beharko ditu, sektoreko hitzarmen kolektibo aplikagarriaren arabera.

Aplikatzen bada beste enpresa hitzarmen edo itun bat, hobetzen duena aipatu hitzarmena, enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen badiote informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

directa contra el antiguo contratista.

